

Irailak 17, domeka

Xarma Duet



XARMA DUET, klarinetea eta akordeoia

Edurne Zabalo klarinetistak eta **Gorka Hermosa** akordeoilariak osatutako duoa da, eta euskal akordeoilariak bikotearentzat berariaz idatzitako konposizioak interpreta-tzen ditu. Gorka Hermosaren musikak hainbat sari jaso ditu, hala nola konposizioko CIA IMC-UNESCO.

Azken bi urteetan, 3 kontinentetako 20 orkestrak jo dute Gorka Hermosaren musika sinfonikoa, eta haren ganbera musika entzungai izan da hainbat auditoriotan, hala nola Berlingo Filarmonikoan, Washingtoneko National, Opera Kennedy Centerren eta Madrilgo Auditorio Nazionalean. Haren estiloan ezaugarri berezia da Iberiar penin-tsulako herri musiken, jazzaren eta musika klasikoaren arteko oreka zaindua.

Edurne Zabalo klarinetista Gasteizko Kontserbatorioko irakaslea da, eta esperientzia zabala du ganbera musikan nahiz askotariko orkestra eta taldeekin; haren sentibe-ratasunak eta nortasunak izaera berezia ematen diote errepertorioari.

EGITARAUA

Mater Noster

Alabei

Fasio

Meditatio

Itsas Alboka

Aurreku

Peace Dream

Amore

Anantango

Brehme